

ARANTZA ZULUETAREN EGOERA SALATZEKO MANIFESTUA

Arantza Zulueta, 2010etik hona, 3 aldiz atxilotua izan da; 2010eko apirilaren 10ean, 2011ko uztailaren 10ean eta azkena 2014ko urtarrilaren 8an.

Lehenengo atxiloketaren ondorioz, ia 10 hilabeteko espetxealdia bete zuen, eta fidantza ordaindu eta gero aske geratu zen. 2011n berriz ere atxilotu zuten eta bigarren aldiz ere, behin behineko askatasuna lortu zuen.

2014ko urtarrilaren 8an, hirugarrenez atxilotu zuten, beste bi abokatu eta bost euskal herritarrekin batera. Bost egunez atxilotua egon ostean, behin behineko espetxeratze agindua eman, eta geroztik preso dago.

Azken atxiloketa EPPKren (Euskal Preso Politikoen Kolektiboa) bitartekari taldeko kidea izateagatik ematen da. Taldearen sorrera testuinguru politiko berriaren baitan kokatzen da, ETA erakunde armatuak bere ekinbidea utzi eta bi urtera. Taldearen lana erabat publikoa izan zen hasieratik. Hamarnaka eragile sozial, sindikal eta politikoekin harremana izan zuten. Helburu nagusia EPPKren komunikazioa eta parte hartzea erreztea zen, beraien iritziak zabaltzea, foro sozialetan eta topaketetan parte hartzeko aukera izatea. Betiere, Euskal Herriak bizi duen gatazkaren erresoluzioa eta honen ondorioak gainditze bidean, eman beharreko urratsak denon artean eztabaidatu eta lantzeko helburuz. Besteak beste, Euskal Preso politikoen egoera bera.

HIRU URTE ISOLAMENDUAN

Talde armatuko kide izatea leporatzen badiote ere, ez dute inoiz gertaera horrengatik epaitu ezta zigortu ere ez. Hiru urte hauetan modulu berezi batean dute, isolamendu galeria batean. Azpimarratu behar da, erregimen hau luzaroan aplikatzea erabat legez kanpoko delatza.

Zein da zehazki Arantzak pairatzen duen erregimena?

Arantza isolamendu erregimenean dago honetarako diseinaturik dagoen modulu batean. Hainbat galeria dituen modulu honek, baditu "laburrak" izendatzen dituztenak. Horrelako batean dute Arantza. 20 ordu jarraian ziegaren eman ondoren (gehiago ez denean), 6x13 metroko patio batera ateratzen dute, horma luze eta sabaia itxia duena. Bere ziegaren aldamenean, aire erauzgailu bat dago eta ondorioz, ziega barnean egon behar duen ordu luzeetan, zarata jasangaitza pairatu behar du.

Arantza bakarrik dago. Gizonentzat diseinaturik dagoen moduluan, funtzionarioak edo lanean diren presoak beste inor ez du ikusten. Galeriarako eramaten dituzten emakumeak zigorren bat betetzera doaz (egun kopuru zehatzarekin) eta maiz, desoreka psikologikoekin.

Ez du inongo aktibitateetan parte hartzeko eskubiderik, ez formakuntzari lotutakoak, ez kulturalak, ezta kirolarekin zerikusia dutenak ere ez. Ziegatik ateratzen den bakoitzean arakatzen dute, ukimenezko araketa hain zuzen. Honi, sarritan egiten dizkioten biluzketazko miaketak gehitzen zaizkio.

Ziegaren pertenezko mugaketa zorrotza du. Garbiketari lotutakoak, arropa edota liburuak, funtzionarioen eskuetan daude ziegatik kanpo. Izan ditzakeen gauza apurrak sarri miatzen dizkiote dena hankaz gora jarriz.

Telefono deiak funtzionarioek erabakitzen dutenean egin ditzake, une horretan bertan jakitera ematen diotelarik. Deia, bost funtzionarioz inguratuta egin behar du, grabatua izateaz gain.

Bizi baldintza anker eta umiliagarri horietaz gain, hau salatu nahi dugu; etxetik eta bere senide eta lagunengandik 1000 kilometrora dagoen espetxean dute Arantza, Puerto de Santamarian.

EGOERA HONEN AURREAN ZERA ADIERAZI NAHI DUGU:

Espetxe politikak errealitate mintsu eta ahuletan du eragina, besteak beste, preso dauden pertsonengan, familiengan eta beraien eskubideetan.

Bizi dugun testuinguruan, eta espetxe politika bizikidetzatza politika baten parte izan dadin, bere gauzatzea aldatu behar da. ETaren ekintzei erantzuteko hartu ziren salbuespenezko neurriek ez dute justifikaziorik. Ezinbestekoa da normaltasun estandarrak berreskuratzea.

Spainako gobernuaren eskuetan dago espetxe politikak berarekin daraman helburu humanizatzailea betetzea, eta legediak berak preso dauden pertsonen egoera hobetzeko aurre ikusten dituen neurriak normaltasunez eta berdintasunez aplikatzea.

Preso guztiek, edozein izanik ere, espetxean egotera eraman dituzten arrazoiak, tratu juridiko berdina izan beharko lukete, legedi eta araudi berdina ezarriz. Berau erabat demokratikoa, justua eta ezinbestekoa den printzipioa baita.

Beraz, Arantza Zuluetaaren egoera salatu eta aldatzeko asmoz, honakoa adierazten dugu:

1. Zulueta bizi duen muturreko egoeraren aurrean gure ezinegona eta kezka adierazi nahi dugu, isolamendu egoeratik atera eta bere eskubideak errespetatuak izango diren egoera berria izan dezan eskatzen dugu. Hori horrela, epaileak beharrezkoak diren neurriak har ditzala eskatzen dugu, jarduketak beharrezkoa den bizkortasunez burutzeko eta ondorioz, ahozko ikustaldirako deia egin dezala ahalik eta azkarren, salbuespenezko behin-behineko espetxeratze neurriari amaiera emateko. Horrela ez balitz, baldintzapeko askatasunean jarri dezala eskatzen dugu.
2. Instrukzio Penitenciarias erakundeari eskatzen diogu Arantzaaren egoera alda dezala: espetxean bizi duen egoera azter dezala eta bertako administrazioak erabilgaitako praktikak zuzenbidearekin eta giza eskubideekin bat datozeala berma dezala.
3. Egoera honen aurrean Arantzaaren senideei gure elkartasuna adierazi nahi diegu.